# DINAMIZACIÓN DE FOROS DE AGENDA 21 LOCAL EN ATXONDO

# TOKIKO AGENDA 21eko FOROEN DINAMIZAZIOA ATXONDON

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa

Mancomunidad de la Merindad de Durango

*ATXONDON, 2012ko urriaren 18a*

*ATXONDO, 18 de octubre de 2012*

| | | |
|---|---|---|
| **Data**: 2012/10/18<br>**Fecha**: 18/10/2012 | **Ordua**: 19:00 – 20:30<br>**Hora**: 19:00 – 20:30 | **Lekua**: Atxondoko Udaletxea<br>**Lugar**: Ayuntamiento de Atxondo |

**Parte-Hartzaileak/Asistentes**

**Udaletxeak / Ayuntamientos**

- Rosa Elizburu (Alkatea/Alcaldesa)
- Uxuri Gallastegi (1. Alkateordea/1er Teniente Alcalde)
- Beñat Amiano (Zinegotzia/Concejal)
- Mikel Cano (Zinegotzia/Concejal)

**Herritarak / Ciudadania**

- 7 herritar / 7 ciudadanos

**Kontsultoria / Consultora**

- Nahia Larrabeiti

| 1. Bienvenida y exposición de los objetivos | 1. Ongietorria eta aurkezpena |
|---|---|
| Agradecimiento y bienvenida por parte de la consultora encargada de dinamizar el foro. Se contextualiza el encuentro dentro del marco de Agenda Local 21 y se procede a la presentación del orden del día y de los objetivos del foro:<br><br>• Situación de Atxondo dentro de la Agenda Local 21.<br>• Respuesta a las propuestas ciudadanas del último Foro AL21<br>• Evaluación del Programa de Actuaciones Sostenibles 2012.<br>• Actuaciones Comarcales Sostenibles.<br>• Propuesta de actuación sostenible municipal para el 2013.<br>• Nuevas propuestas ciudadanas.<br>• Conclusiones y próximos pasos. | Entitate Koordinatzaileak ongietorria eta eskerrak ematen die bertaratutakoei Tokiko Agenda 21eko azalpen bilerara hurbiltzearren. . Lehendabizi, eguneko gai zerrenda azaltzen da, hala nola, foroko helburuak:<br><br>• Atxondoko egoera Tokiko Agenda 21an.<br>• TA21eko azken foroko herri proposamenei erantzuna.<br>• 2012ko Ekintza Iraunkorren Programaren ebaluaketa.<br>• Eskualdeko Ekintza Iraunkorren zerrenda.<br>• 2013 urterako Udaletxeko proposamen iraunkorren zerrenda.<br>• Herri-proposamen berriak.<br>• Ondorioak eta hurrengo urratsak. |

| **2. Situación de Atxondo dentro de la AL21** | **2. Atxondoko egoera Tokiko Agenda 21an** |
|---|---|
| A modo de inicio, la consultora comienza ubicando el foro de evaluación de AL21 dentro de un calendario cíclico que anualmente los Ayuntamientos y municipios llevan a cabo como ideario metodológico de la gestión sostenible.<br><br>A continuación se realiza un recordatorio del significado de la AL21, y expone la importancia de ésta dentro de la gestión municipal.<br><br>Finalmente, se subraya la relevancia de la participación ciudadana en los foros de AL21 como espacios de interrelación entre la sociedad municipal y Ayuntamiento, con el objetivo de intercambiar entre todos los agentes el devenir de la AL21 en Atxondo. | Tokiko Agenda 21eko Ebaluaketa Foroa, Udaletxe eta udalerrien egutegi zikliko baten barruan sartuta dagoela ezagutarazten da, beti ere eremu iraunkorra kontutan izanik.<br><br>Jarraian, Tokiko Agenda 21aren zentzua azaltzen da, udal kudeaketaren barruan duen garrantzia azpimarratuz.<br><br>Azkenik, TA21eko foroak herritarrak eta Udaletxeko agintariak biltzen dituen gune bezala azaltzen da, non herri partaidetza ezinbestekoa den elkargune hauek aurrera atera ahal izateko. Denok batera Atxondoko etorkizunaren inguruko gaien inguruan mintzatzea du helburu. |
| **3. Respuesta a las propuestas ciudadanas de 2011** | **3. 2011ko Herri-proposameni erantzuna** |
| El Ayuntamiento toma la palabra para comentar a explicar las acciones realizadas a partir de las propuestas ciudadanas del último foro del 2011:<br><br>• **Sobre la rotonda de Irubide…** la rotonda de Irubide está directamente relacionada con el PGOU. A pesar de que el Plan no está aún aprobado, en éste se contempla la futura edificación en las inmediaciones de Markoida, proyecto que comprende la zona de Irubide y en el que se incluiría la rotonda que el Ayuntamiento también entiende necesaria. | Udaletxeak hitza hartzen du 2011ko azken foroan herritarren aldetik ageritako proposamenen gainean egindako ekintzak aurkezteko:<br><br>• **Irubide errotondaren inguruan…** HAPOrekin lotura zuzena du Irubideko errotondak. Plan Orokorra oraindik onartu ez den arren, etorkizunean Markoidako zonaldean etxebizitzak eraikitzea jasotzen du eta proiektu horrek Irubideko errotonda ere barneratuko luke. |

- **Sobre el bidegorri hacia Elorrio…** el bidegorri está estrechamente ligado a la obra de la Autovía de la Diputación. A pesar de que el proyecto se encuentra parado, en su día se llegó a un acuerdo verbal en el que la Diputación asumía la obra del bidegorri hacia Elorrio, a cambio de la cesión de un tramo de terreno municipal**.** No tendría sentido construir un bidegorri en estos momentos, ya que las obras de la autovía lo destrozarían.

Un asistente pregunta por el trazado del bidegorri. El Ayuntamiento explica que el recorrido dependerá del trazado de la autovía y que se decidirá en la negociación que se lleve a cabo con la DFB.

Respecto a la autovía, se aclara que el proyecto está realizado y adjudicado y en un principio las obras iban a comenzar en verano. En este proyecto se incluye un trazado de bidegorri que en su día fue rechazó por los Ayuntamientos de Atxondo y Elorrio. Los entonces alcaldes de ambos municipios, junto con Iurreta y Amorebieta, propusieron un trazado alternativo, que básicamente consistía en construir una acera que transcurriese por el antiguo camino hacia Elorrio.

- **Sobre las viviendas sociales…** en noviembre hace un año que las cuatro familias habitan las viviendas sociales. Cuando la situación económica lo permita el Ayuntamiento contempla la edificación de nuevas viviendas sociales. Se ha pensado en el terreno municipal de detrás de la pescadería como posible terreno de edificación. De momento se va a crear una bolsa que se abrirá cada año para inscribirse y poder acceder a futuras edificaciones.

  Además, se organizaron conferencias para crear una especie de cooperativa en torno a la vivienda. Se abrieron listas para inscribirse en la iniciativa pero no se apuntó ningún vecino.

- **Elorriorako bidegorriaren inguruan…** Aldundiaren autobidearen proiektuarekin lotura zuzena du bidegorriak. Momentu honetan geldirik dagoen arren, Autobidea Atxondoko udalerritik igaroko litzateke eta kontzesio horren truk, Aldundiak Elorriorako bidegorriaren obra bere gain hartzea adostu zen ahozko akordio baten bidez bere garaian. Momentu honetan bidegorria eraikitzea ez luke zentzurik edukiko, autobiaren obrek hondatuko luketelako.

Bertaratutako batek bidegorriaren ibilbideagatik galdetzen du. Udalak azaldu egiten du ibilbidea autobideak baldintzatuko duela eta zehazki BFArekin mantendu beharko den negoziaketan erabakiko dela.

Autobideari dagokionez, proiektua eginda eta esleituta dago jadanik eta lanak udan hastekoak ziren. Proiektu honek bidegorriaren ibilbide bat gaineratzen du, bere momentuan Atxondo eta Elorrioko Udalek onartu ez zutena. Bi udalerri hauek, Iurreta eta Zornotzarekin batera, bidegorriarentzat ibilbide alternatibo bat proposatu zuten; Elorriora zihoan bide zaharraren parean espaloi bat eraikitzean oinarritzen zen proposamena.

- **Etxebizitza sozialen inguruan…** Azaroan urte bat beteko da lau familiak bertan bizi direnetik. Egoera ekonomikoak ahalbideratzen duenean, etxebizitza sozial gehiago eraikitzea da Udalaren ideia. Arrandegiaren atzealdeko lursaila izan liteke edifikatzeko zonalde aproposa. Momentuz, urtero irekiko den poltsa bat sortuko da Udaletxean etxebizitza sozialetan izena emateko.

  Bestalde, Kooperatiba moduko bat sortzeko hitzaldiak ospatu egin ziren baita ere. Ekimenera gehitzeko zerrendak eta guzti zabaldu egin ziren baina inork ez zuen izenik eman.

| | |
|---|---|
| • **Sobre el pequeño comercio…** durante el presente ejercicio no se ha podido tratar el tema. Se tratará el tema a corto-medio plazo para determinar si existe alguna acción viable y emprenderla. | • **Komertzio txikiaren inguruan..** aurten ez da gaia jorratzeko lekurik izan. Epe motz-ertainean gaia hausnartuko da, bideragarria den ekintzaren bat garatu daitekeen zehazteko. |
| **4. Evaluación del programa de acciones sostenibles 2012** | **4. 2012eko Ekintza Iraunkorren Programaren ebaluaketa.** |
| A continuación, de mano de la Alcaldía se comienzan a enumerar cada acción desarrollada a lo largo del año 2012, así como los detalles de las mismas:<br><br>➢ **Arreglo de las piscinas:** se realizó una obra importante previa a la apertura de las piscinas en junio. Dos trabajadores municipales se emplearon a lo largo de casi dos meses 4 horas al día para arreglar los azulejos y las grietas provocadas por la fuga. No se puede garantizar que el problema esté del todo solucionado, esto es, se ha de verificar que la piscina ya no pierde agua. Para ello se han de comprobar los datos del gasto en agua del año pasado y de éste (aún no se han recibido los datos trimestrales). La comparativa del gasto determinará si el arreglo que se hizo ha sido suficiente.<br>Es posible que el propio uso de las piscinas sea el causante de la avería pero aun así se debe estudiar el tema.<br><br>➢ **Grupos de trabajo y Auzolanas:** en noviembre se van a celebrar Auzo Batzarras: una en Axpe, otra en Arrazola y tres en Apatamonasterio. Se recogerán las demandas y propuestas de los vecinos y se tratará el tema de los | Udaletxeko agentek hitza hartzen dute 2012an zehar garatutako ekintza iraunkorren zerrenda aipatzeko, bai eta bakoitzaren betetze maila ere:<br><br>➢ **Udal igeritokien konponketa:** udan zabalik egon dira, ekaina amaieratik iraila amaiera arte. Zabaldu aurretik konponketa lanak egin behar izan ziren (ura galtzen zen nonbaitetik). Ia bi hilabetez eta lau ordu egunean bi udal langile aritu ziren ur-ihesak eragindako azulejoak eta arrailak konpontzen.<br>Orain, aurtengo eta iazko ur gastuaren datuak konprobatu behar ditu udalak (oraindik ez dira hiruhilabeteko honetakoak heldu beraz ezin izan da konparaketa egin), ez dagoelako argi guztiz konpondu egin den arazoa, hau da, igeritokia ura galtzen jarraitzen duen konprobatu behar da .<br>Baliteke erabileraren ondorioz hondatu izatea, baina hala eta guztiz ere aztertu behar den gauza da.<br><br>➢ **Lantaldeak eta auzolanak:** azaroan auzo batzarrak ospatuko dira lehenengo aldiz. Axpen eta Arrazolan batzar bana ospatuko da eta Apatamonasterion hiru. Auzokideen proposamen eta eskaerak jasoko dira eta ondoren |

presupuestos participativos, con el objetivo de diseñar entre todos una metodología para desarrollar este mecanismo .Se espera que los grupos de trabajo tengan continuidad y se erijan y funcionen como agentes activos del municipio. Por otro lado se organizó un Auzolana y se limpió el camino de Axpe. En cambio, no puedo celebrarse el segundo encuentro que se había programado y que estaba destinado a reparar los baches y desperfectos del camino. El mal tiempo impidió celebrar el segundo auzolana y la carretera quedó sin arreglar.

Se organizó otro auzolan con los padres y madres de los niños y niñas de la ludoteca. Al vaciarse el local que servía de comedor en la antigua escuela, se organizó un auzolan formado por los padres y madres para trasladar allí la ludoteca municipal.

- **Tasas y presupuestos:** ha habido un problema en torno al IVI. En 2012 se realizó una subida del IVI que llevaba sin ser revisado 15 años. A pesar de la subida, el Ayuntamiento quiso dar una bonificación a las viviendas ocupadas del municipio, con la intención de promover a través de esta medida el uso de las viviendas vacías del municipio. Sin embargo, la Normativa Foral impide aplicar la bonificación que el Ayuntamiento había decidido otorgar a las viviendas ocupadas del municipio, y las Ordenanzas de 2012 se aprobaron sin las correcciones que había que hacer. Se trataba a través de la bonificación de Atxondo.

  En estos momentos se está estudiando el tema para encontrar la manera de devolver la cuantía a los/as vecinos/as.

  Por otro lado se llevará a Pleno la propuesta de congelar las tasas e impuestos. La cuota de las piscinas será la excepción, ya que se le aplicará la subida del IPC.

aurrekontuen gaia jorratuko da, guztion artean, aurrekontu parte-hartuak gauzatzeko metodologia bat diseinatzeko. Jarraitasuna eman nahi zaie auzoen batzar edo lantalde hauei, bilera isolatuetan ez bihurtzea, baizik eta udalerriko agente aktibo bezala eratzea eta funtzionatzea bilatzen da. Auzolanei dagokienez, saio bat ospatu zen Axpeko bideko garbiketa gauzatzeko. Bigarren saio bat ere hitzartu egin zen, oraingoan bide horretako zuloak eta aldeak konpontzeko baina denborak ez zuen lagundu eta ezin izan zen ospatu. Auzo batzarren bidez auzolanak bultzatzea espero da.

Ludotekako umeen gurasoekin ere beste auzolan bat ospatu zen: jantokia hustu zenean, ludoteka bertara garraiatzearen lana, gurasoek antolatu zuten auzolanaren bidez gauzatu zen.

- **Aurrekontuak eta tasak:** udalak akats bat egin du IBIaren inguruan: 2012an IBIaren inguruan igoera bat egin zen legeak ezarritako tartearen barnean. 15 bat urtetan igo barik zegoen tasa zen. Igoera egin arren bonifikazio bat jarri nahi zen erabiltzen diren etxebizitzei aplikatzeko. Etxebizitza hutsek ordea, igoeraren osotasuna jasoko zuten. Neurri honen bidez, udalerriko etxebizitza hutsen merkatua sustatu eta bizitu nahi zen. Arautegi Foralak ordea ez du bonifikazio horren aplikazioa onartzen, eta egin beharreko zuzenketa egin barik onartu ziren 2012rako ordenantzak (kasu honi dagokionez). Momentu honetan Udala gaia hausnartzen ari da, hau da, herritarrei diru kopuru hori bueltatzeko modua aztertzen ari da. Segurazki datorren urteko IBI zergari beharrezko jaitsiera emanez konponduko da arazoa.

  2012ko tasa eta zergei dagokionez izoztua gelditzearen aldeko proposamena eramango da plenora. Salbuespen bezala igeritokiari dagokion kuota dago, zeini BEZa aplikatuko zaion.

| | |
|---|---|
| ➢ **Aprobar el PGOU**: el Plan General de Atxondo ha tenido que adaptarse a un cambio en las leyes que se ha dado recientemente, por lo que se ha retrasado su aprobación. Se espera aprobar el Plan General en el plazo de tres meses. Posteriormente será enviado a la Diputación. | ➢ **HAPOa onartu:** legedian eman den aldaketa bat dela eta, Atxondoko Plan Orokorra eraldatu behar izan da eta horren ondorioz onarpena luzatu egin da. Hemendik hiru hilabeteetara HAPOa onartua egotea espero da. Onartu orduko Aldundira bidaliko da. |
| ➢ **Arreglo del tejado del Ayuntamiento:** la ciclo génesis levantó y estropeó el tejado del Ayuntamiento. La reparación ascendió a los 31.000€ pero se recibió una subvención de 28.000€ de la Diputación, por lo que el Ayuntamiento tan solo tuvo que invertir alrededor de 3.000€. En estos momentos el tejado vuelve a estar buenas condiciones. | ➢ **Udaletxeko teilatuaren konponketa:** udaletxeko teilatua ziklogenesiaren ondorioz hondatu egin zen. Konpontze lanak 31.000€ gastua izan zuten baina Aldunditik 28.000€ko diru laguntza lortu zen, beraz Udalak 3.000€ baino ez zituen jarri behar izan. Momentu hauetan teilatua konpondurik dago jadanik. |
| ➢ **Edificio nuevo de la escuela:** el nuevo edificio de la escuela está en marcha desde septiembre. Se ha trasladado la ludoteca a la instalación de madera dónde se ubicaba el comedor escolar. Además, con la apertura del nuevo edificio han quedado libres varios locales (edificio prefabricado, el gimnasio municipal, locales privados alquilados por el Ayuntamiento…). El poder prescindir de los locales alquilados ha posibilitado que se reduzca el gasto público. | ➢ **Eskola eraikin berria:** eskola eraikin berria martxan dago jadanik. Irailean zabaldu egin da. Jantokia zegoen egurrezko udal instalaziora ludoteka eraman da. Horrez gain, eraikin berriaren funtzionamenduarekin hainbat lokal geratu dira libre (eraikin prefabrikatua, udal-gimnasioa, udalak alokatutako eraikin pribatuak…). Alokaturik zeuden lokalak uzteak udal gastuen murrizketa ekarri du. |
| **5. Acciones sostenibles comarcales** | **5. Eskualdeko Ekintza Iraunkorrak** |
| A continuación, Gestiker expone la situación de la sostenibilidad en el Durangesado explicando los proyectos comarcales que han sido diseñados para ser emprendidos: | Jarraian Gestikerrek eskualde mailara bideratzen du foroa, Durangaldean burutzen ari diren eta burutuko diren ekintzen berri emateko: |
| ○ **Agenda 21 Escolar: s**e reconoce como un compromiso y un plan de acción de la comunidad educativa para trabajar dentro de la Agenda Local 21. | ○ **Eskola Agenda 21 proiektua:** hezkuntza elkartearen ekintza plana da, TA21aren barnean lan egiteko.Kurtso honetako gaia, lur produktuetako kontsumoan datza. Gai hau irizpide |

| | |
|---|---|
| La temática de este curso versa sobre el consumo de los productos de la tierra, a partir de la cual se desarrollarán diversas acciones (video-foros, visitas…), así como encuentros para implicar en la iniciativa a diferentes colectivos (profesores, familias y ayuntamientos). | harturik zenbait ekintza burutuko dira (bideo-foroak, bisitaldiak…), hala nola bestelako agenteen (irakasleak, familiak eta udaletxeak) inplikazioa lortzeko zenbait elkargune eta ekimen. |
| o **Asesoramiento ambiental a empresas:** Se trata de un proyecto impulsado que tiene como finalidad incorporar la visión del tejido empresarial en la sostenibilidad municipal. En el 2010 se realizó un "Proyecto Piloto" para regular las actividades empresariales que no se ajustaban a la normativa legal y sostenible, en el que participaron varios municipios del Duranguesado, entre ellos Atxondo.<br>Entre 2011 y 2013 se dará continuación al "Proyecto Piloto" con empresas ya participadas en el primer paso del proceso, a las que se les practicará un seguimiento, y nuevas empresas que se incorporarán al mismo. | o **Ingurugiro aholkularitza enpresei:** udalerriko enpresak modu iraunkorrago baten lan egin dezaten egina da, udalerriko iraunkortasuna hobetu dezan. 2010an proiektu pilotu bat jarri zen martxan iraunkortasun araudiak betetzen ez zuten enpresak identifikatzeko. Bertan, Durangaldeko zenbait udal parte hartu zuten, hauen artean, Atxondo.<br>2011 eta 2013 urteen bitartean proiektu pilotu honi jarraipena emango zaio lehengo pausuko enpresei segimendua ezarriz, eta enpresa berriak proiektura gehituz. |
| o **Mediciones de calidad del aire:** se realizarán dos campañas por cada uno de los 11 municipios de la Mancomunidad. La primera se llevará a cabo en invierno y la segunda en verano y cada campaña tendrá una duración de 2 semanas.<br>Se trata de conocer las variaciones de la calidad del aire en función de la estacionalidad. | o **Airearen kalitatearen neurketak:** Amankomunazgoa osatzen duten 11 udalerrietako bakoitzean bi kanpaina ospatuko dira, bata neguan eta bigarrena udan. Kanpaina bakoitzak bi asteko luzera izango du.<br>Urtaroaren arabera airearen kalitatean ematen diren aldaketak ezagutzean datza froga. |
| o **Inventario de calderas:** se basa en realizar un inventario de las calderas domésticas de la comarca. Se trata de contribuir con la mejora de los niveles de la calidad del aire, ya que el sector residencial y doméstico es el responsable del 8% de la contaminación atmosférica y representa el 40% del consumo total de energía de los municipios. | o **Galdara inbentarioa:** eskualdeko etxe-galdaren inbentarioa egitean datza. Airearen kalitatea hobetzen laguntzeko egiten den proiektua da. Izan ere, kutsadura atmosferikoaren %8a etxeko sektoreak eragiten du, eta udalerrietako energi kontsumoaren %40 ere etxeko sektoreari dagokio. |
| o **Mejora del Servicio de Recogida de RU:** se trata de actualizar y mejorar el Servicio de Recogida de RU de la MMD. Se eliminarán los contenedores pequeños de carga | o **HH Bilketa Zerbitzuaren hobekuntza:** DMAren Hiriko Hondakinen Bilketa Zerbitzua eguneratu eta hobetzean datza. Atzeko kargako edukiontzi txikiak kenduko dira, eta |

| | |
|---|---|
| trasera y se centralizará la recogida creando isletas a la entrada de cada barrio que agrupen los diferentes tipos de contendores de RU. | bilketa, auzoetako sarreretan eratuko diren irletetan zentralizatzen joango da. Irleta hauek edukiontzi mota ezberdinak bateratuko dituzke. |
| ○ **Estudio implantación Sistema de Recogida de Residuo Orgánico:** desde la Mancomunidad, y en relación al proyecto anterior, se va a estudiar la viabilidad técnica y económica de diferentes sistemas de recogida de residuo orgánico. Se trata de estudiar la posibilidad de destinar la fracción orgánica de los RU al compostaje. | ○ **Hondakin Organikoaren Bilketa Sistema ezartzeko ikerketa:** Amankomunazgotik, eta aurreko puntuari lotuta, hondakin organikoa biltzeko sistema ezberdinen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa hausnartuko da. Frakzio hondakina, konpostajera bideratzearen aukera aztertzean datza. |
| **6. Propuesta de Actuación Sostenible Municipal para el 2013** | **6. 2013 urterako Udaletxeko proposamen iraunkorren zerrenda** |
| El Ayuntamiento coge la palabra para enumerar aquellas acciones previstas para el próximo ejercicio, advirtiendo previamente que este número de proyectos irá ampliándose en el día a día y según surjan necesidades: | Udaletxeak hitza hartzen du, datorren urteari begira gauzatuko diren ekintza berrien zerrenda aurkezteko, beti ere behin-behineko zerrenda dela ohartaraziz, beharrak sortzen diren heinean zerrenda hau betetzen joango delarik: |
| **- Locales de la nueva escuela:** regular el uso y funcionamiento de los locales de la nueva escuela. | - **Eskola berriko lokalak:** eskola berriaren lokalen erabilpen eta funtzionamendua arautzea. |
| - **Gimnasio municipal:** pensar y determinar otras posibles actividades a desarrollar en el gimnasio municipal con intención de sacarle mayor rendimiento. | **- Udal gimnasioa:** udal gimnasion garatu daitezkeen beste jarduera batzuk pentsatu eta sustatzea, gimnasioari etekin handiagoa ateratzeko asmoz. |
| **- Auzo Batzarras:** en noviembre se pondrán en marcha las Auzo Batzarras. Se pretende dar continuidad a los grupos de trabajo que se creen en éstas. | **- Auzo batzarrak:** azaroan auzo batzarrak martxan jarriko dira. Hauetatik sortzen diren lantaldeei jarraitasuna eman nahi zaie. |
| **-Piscinas:** en caso de que las piscinas continúen dando | - **Igeritokiak**: arazoak ematen jarraituz gero, igeritokiaren |

| | |
|---|---|
| problemas, su arreglo será una de las prioridades en la agenda del Ayuntamiento.<br><br>**-Jardines municipales:** renovar y acondicionar los jardines y demás espacios verdes del municipio. Se realizará un pequeño proyecto para diseñar la renovación de los mismos. | konponketak lehentasuna izango luke Udaletxearen zereginen zerrendan.<br><br>**- Udal lorategiak:** udalerriko lorategi eta gainontzeko gune berdeak berristu eta atontzea. Hauen berriztapena diseinatzeko proiektu txiki bat egingo da. |
| **7. Propuestas ciudadanas** | **7. Herri-proposamenak** |
| A continuación se da paso a los ciudadanos y las ciudadanas para que realicen sus aportaciones en torno a la Agenda Local 21:<br><br>• ***Barraskil:*** una ciudadana se queja por el estado de Barraskil, alegando que la zona está en condiciones penosas. Exige que al empezar una obra primero se urbanice y en una segunda etapa se construya. El Ayuntamiento explica que la empresa constructora se fue a pique y abandonó la obra. A día de hoy la zona está vallada.<br>• ***Aparcamientos piscinas:*** otro asistente señala que en verano principalmente no hay sitio para aparcar en las piscinas. En el PGOU se contempla acondicionar el entorno de las piscinas para poder aparcar en sus inmediaciones.<br>• ***Carretera de Axpe:*** una ciudadana denuncia el mal estado de la carretera hacia Axpe, y la peligrosidad que conlleva. Solicita que se arregle antes de que llegue el mal tiempo (aunque sea que se tapen los agujeros). La competencia de la carretera es municipal y el problema está en que el Ayuntamiento con la situación actual no consigue subvenciones para poder arreglarla. | Herritarrek hitza hartzen dute Tokiko Agenda 21aren inguruan euren ekarpenak egiteko:<br><br>• ***Barraskil:*** herritar batek Barraskileko egoera txarra salatzen du. Obra bat egiten denean lehenengo lekua urbanizatu behar dela gaineratzen du, eta bigarren pauso batean eraikitzea etorriko litzateke. Udalak azaldu egiten du enpresa konstruktorak porrot egin zuela eta ondorioz obra bertan behera geratu zen. Dena den Udalak zonaldea hesitu egin zuen bere garaian.<br>• ***Igeritoki inguruko aparkalekuak:*** beste partaide batek igeritoki inguruan dagoen aparkaleku falta komentatzen du. HAPOan igeritokien ingurua atontzea aurreikusi da, bertan aparkalekuak eraikitzeko.<br>• ***Axperako bidea:*** beste herritar batek Axpera doan bideko egoera kaxkarra salatzen du eta horrek sortarazten duen arriskua. Denbora txarra heldu baino lehen errepidea konpontzea eskatzen du (zuloak estaltzea behintzat). Errepide horren eskumena udal mailakoa da baina egungo egoerarekin, Udaletxeak ez du bidea konpontzeko diru laguntzarik lortzen. |

| | |
|---|---|
| • ***Excrementos de los perros:*** otra ciudadana se queja por los excrementos de los perros. El Ayuntamiento comparte la preocupación pero no dispone de mecanismos que puedan emplearse para paliar el tema. A lo sumo podrá publicarse la ordenanza a través de bando.<br>• ***Poda de los árboles:*** otro vecino pregunta cuando se realizará la poda de los arboles (plataneros) ya que han empezado a mudar las hojas. El Ayuntamiento es consciente de la necesidad pero se explica el elevado coste que implica la poda, tanto en el alquiler de la maquinaria como en horas de trabajo de los empleados. Hasta el momento la poda se ha venido haciendo cada dos años y en principio este no correspondería ya que se hizo el otoño pasado. | • ***Txakurren kakak:*** txakurren kakak edonon aurkitzen direla salatzen du emakume batek. Udaletxeak gaiarekiko sentsibilitatea konpartitzen duen arren, arazoari irtenbidea emateko tresnarik ez duela argitzen da. Bando bidez horren inguruko ordenantza zabaldu daiteke gehienez.<br>• ***Zuhaitzen inausaldia:*** bertaratutako batek udalerriko zuhaitzen (plataneroak) inausaldia noiz gauzatuko den galdetzen du, hostoak erortzen ari direlako jadanik. Udalak arrazoia ematen dio herritarrari baina inausaldiak daukan koste itzela azaltzen da, bai tresneriaren aldetik, baita langileen lanorduengatik ere. Orain arte bi urtero behin egin izan da inausaldia, eta printzipioz iaz egin zenez, aurten ez da toka. |
| **8. Próximos pasos y Despedida** | **8. Agurrak eta hurrengo urratsak** |
| Una vez finalizada la exposición, se comunica la metodología del levantamiento del acta, el envío de ésta hacia el Ayuntamiento y su posterior disposición pública a la sociedad de Atxondo.<br><br>Se agradece a todos y todas su presencia y participación en este Foro, al igual que se aprecia la predisposición de los y las asistentes a participar exponiendo sus inquietudes y preguntas.<br>. | Behin aurkezpena bukatuta, foroan jorratutakoa aktan jasota geratuko dela gogoratzen zaie bertaratutakoei. Honez geroztik, akta Udaletxera bidali egingo da, guztiontzako publikoa izanik.<br><br>Guztion etorrera eta parte-hartzea eskertu egiten da, bakoitzaren proposamenak, ideia berriak eta ardurak baita estimatuz. |